

LURRALDIA 2024

SAN ISIDRO EGUNA, 15, asteazkena

9:30ean: **ESTANGA** TRIKITILARIAK

10:00etan **PROZESIO** ETA MEZA

11:00etan HAMAIKETAKOA Gure Izarra Elkartean

12:15ean **IDIDEMAK: IPIÑARRIETA eta ARANBARRI**
idijabeen plazaratu gabeko idipareak
1.640 kiloko ATXITXE harriaz, pisu librean, 30 min.

Egunean zehar **BERTSOLARIAK:** S. LIZASO eta A. EGAÑA

14:30ean Herriko bazkaria eta **ELIONE "Baserri bizia"ri**
merezitako esker ona ematea

17, ostirala: Julen AXPE umoregilea, 19:00etan Oiarbide baserrian

18, larunbata: EIDER abeslaria eta MODUS OPERANDI taldea
22:00etan Kontxa Etxeberria plazan

ILARRAREN EGUNA, 19, igandea

10:30ean: **ILARRAREN AZOKA**, dastaketa, salmenta...

HERRIKO GANADU ERAKUSKETA

MANTEROLA ANAIAK PENTSUAK S.L.
PENTSU ETA BESTE NEKAZALGAIAK



Pgno. Erratzu, 1
Pabellón 135

Telf. 943 55 03 35
20130 URNIETA

Astigarragan SAN ISIDRO 2024

maiatzak 15, asteazkena



Astigarragako Udala

HISTORIA

Elione baserria Astigarragan baserri bezala eraikitako azkenetarikoa da, 1905ean sortu baitzen. Garai hartan, Madrilgo Ana Maria Elio Gaztelu Markesak Astigarragako lurretan zituen haritzen truk egin omen zuen baserria, Ergobiako Joakin Estanco kontratista zuela.

*Inazio Berasarte
"Elio" bertsolaria
bertan jaio zen
1922ko abuztuan*

Elio baserriaren ize-na Markesa berak zuen lehen abizenetik dator. Bertan jaio zen Inazio Berasarte "Elio" bertsolari famatua, 1922ko abuz-

tuan. 1949an eta 1951n Zarautz eta Tolosa herrietan egindako txapelketan irabazle izan zen.


1974 urtera arte errentan

Lontxo Berasarte eta Maria Agirrezabala aiton-amonak errentan bizi ziren baserrian, eta garai hartan urteko 600 pezeta ordaintzen zituzten. 1974an, familiak jabetzan hartu zuen baserria eta 1975ean berrikuntza osoa egin zuen. Izan ere, etxeokoe diotenez, "haritzen truk eraikitako baserria pinuz osatutakoa zen".

Gaur egun Lontxo eta Maria aitona-amonak izan zituzten Inaxio eta Maite seme-alabek jabetzan dute baserria eta bi etxebizitzatan banatuta dago. Inaxio eta Billabonako Aztain baserriko Pilar Jauregi 1985ean ezkondu ziren eta bi seme-alaba izan dituzte: Edurne eta Iñaki. Familia honek bere gain hartu zuen baserri gintzako lanen ardura. Inaxio txikitatik hasi zen egin-kizun horietan, hamar urterekin hasi baitzen behiak jezten, eta hori bera egiten jarraitu du azken 60 urteotan, gehienetan lanera joan aurretik.



ELIONE BASERRIA



Elione baserria Iparralde bidean dago.

Bentas auzorako errepidearen parean dago. Bi etxebizitzez osatutako baserria bi oineko eraikuntza da, bakoitzak 140 metro karratu dituela. Beheko oinean, baserriarekin zerikusia duten jarduerak gauzatzen dituzte. Lehen oinean etxebizitza dute eta bertan bizi dira, alde batetik, Inaxio eta Pilar eta bi seme-alabak, eta ezker aldeko beste etxebizitzan Maite eta Antonio senar-emazteak bizi dira, bi semeekin. Baserriaren ondoan, ukuilua, belar biltegia eta baserriko tresnak (traktorea eta sega-makina, besteak beste) gordetzeko lokala dituzte. Baserria errepide ondoan egoteak badakartza eragozpenak lanerako, baina denborarekin ohitu egin dira.

JARDUERAK

Elione baserriak dituen ustiapen jarduerarik nagusienak abeltzaintza eta sagardogintza dira. Langintza horiek egin ahal izateko, 3 bat hektarea dauzkate sagastitarako eta beste 3 hektarea basogintzarako. Abeltzaintzaren arloan, aldiz, haragitarako 4 txekor eta 2 behi dituzte ukuiluan. Garai batean, 30 bururen kargu egiten ziren aziendan.

Sagastian dauzkaten 800 sagarrondoekin aparteko sagardoa ere egiten dute, baserriko kontsumorako. Gainerako sagarrak herriko sagardotegietan saltzen dituzte, 2021ean ia 40 tona sagar bildu baitzituzten.

*Sagastian 800
sagarrondo ditugu
eta 2021ean ia 40 tona
sagar bildu genituen*

BIZITZA

Inaxio eta Pilar harro daude baserrian egindako ibilbideaz. Biek baserriatik kanpoko lanari heldu behar izan badiote ere, sentimenduz eta ohore handiz egin dute bizitza baserrian. Era berean, auzotarrekin izandako harremanak sendoak izan dira, Elizondo baserria erabat erre zenean, esate baterako.

Gure baserriar kuttun hauek etorkizunari begira itxaropentsu badira ere, ez dute uste baserri mundutik bizi daitekeenik, kanpoko diru-sarrerak beharrezkotzat jotzen baitituzte. Seme-alabek ere asko estimatzen dute baserrian bizitutakoa, eta jarraitzekotan dira.

Merezitako esker ona jaso

Familiak egindako ahaleginak aitortzeko eta esker ona emateko, San Isidro egunean, "Baserri bizia" izeneko oroigarria emango zaie senideei.